

HONDARRIBIA ETA TOKIKO AGENDA 21

Hondarribiko Udalak Tokiko Agenda 21en programari hasiera *Txingudiko Udaltalde 21* sortu eta garatzeko hitzarmena sinatzearekin batera eman zion. Aipatu hitzarmena 2004ko azaroaren 18an sinatu zuten Hondarribiko eta Irungo Udalek, Bidasoako Garapen Agentziak –Bidasoa bizirik-, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren menpe dagoen Ihobe Sozietate Publikoak. *Txingudiko Udaltalede 21* ekimenaren helburua Tokiko Agenda 21a (aurrerantzean TA21) Hondarribia eta Irungo udalerrietan ezartzea izan zen, honela, Hitzarmena sinatu zuten entitateen artean garapen iraunkorrarekin zerikusia duen elkarlana eta esperientzien trukaketa sustatuz.

Txingudiko Udaltalde 21en koordinazio orokorra Ihobek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatu zuten, eta Bidasoa bizirik arduratu zen Hondarribiko eta Irungo udalerrietan TA21en diseinu fasearen eguneroko koordinazio lanak aurrera eramateaz, *Txingudiko Udaltalde 21*en koordinatzaile teknikariaren bidez. Udaltalde 21en jarraipen orokorra sustatzeko asmoz, proiektuaren koordinazio bilerak ere gauzatu ziren prozesu horrek iraun zuen bitartean (bilera horietan Hitzarmena sinatu zuten kideek parte hartzen zuten).

TA21en ezarpena garapen iraunkorraren alde udalerrri zein eskualde mailatik lan egiteko prozesuaren lehen fasea izango litzateke –diseinu fasea bezala ere ezagutzen dena-. TA21 ezartzeko lehen fase honetan Udaltalde 21en kide diren udalerriek eman beharrezko pausoak honakoak dira:

- Udal langileak tokiko iraunkortasunaren inguruko oinarritzko kontzeptuen inguruan hezteko prestakuntza saioak gauzatzea.
- Bi udalerrietan herriko egoeraren diagnostia egitea eta ezagutzera emate.
- Barne zein kanpo partaidetza sustatzera bideratzen diren mekanismoen eraketa; barne partaidetzak udaletxe barruko sailen arteko parte hartzeari egiten dio erreferentzia eta kanpo partaidetzak, aldiz, TA21en prozesuan zehar herritarren parte hartzea bultzatzeari.
- Tokiko garapen iraunkorrari lotutako hainbat arazo edo alderdien inguruan herritarrek duten pertzepzioa ezagutzeko 500 inkesta egitea, ondoren diagnostiko tekniko osatzeko asmoz.
- Udalerrri bakoitzaren iraunkortasunerako I. Tokiko Ekintza Plana herritarren parte hartzearekin –elkarteak, entitateak eta banakako herritarrak- diseinatzea (udalerrri bakoitzak bere Plana izango lukeelarik).
- I. Tokiko Ekintza Plana udal bakoitzeko osoko bilkuran onartzea, *Udalsarea 21*en sartu ahal izateko (Udalsarea 21: Iraunkortasunerako euskal udalerrien sarea –www.udalsarea21.net-).

Hondarribiko Udalari dagokionez, 2005 urtearen lehen hiruhilekoan **Tokiko Agenda 21i buruzko oinarritzko prestakuntza saioa** gauzatu zen Hondarribiko Udaletxean, non garapen iraunkorraren kontzeptua eta bere inplikazioak, Txingudiko Udaltalde 21 sortu izanaren helburuak eta, Hondarribiko Tokiko Agenda 21en prozesuaren lehen fasearen lan plangintza azaldu ziren. Aipatu ikastaroa udaleko teknikari zein ordezkari politikoei zuzendu zitzaien.

Aldi berean, 2005 urtearen bigarren hiruhilekoan Bidasoa bizirik-ek kontratatutako asistentzia teknikoak udal diagnostiko teknikoak egiteko lehen pausoak ematen hasi zen, udaletxeko zein Udalez gaindiko erakundeek asistentzia teknikoari bidalitako informazioa horretarako baliatuz. Diagnostiaren informazioa eskuratzeko orduan, besteak beste, Hondarribiko Udalak, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak eta Bidasoa Bizirik agentziak parte hartu zuten.

Behin diagnostiarene zirriborroa bukatuta, Bidasoa bizirik-ek kontratatutako koordinazio –teknikaria arduratu zen aipatu dokumentua berrikusteaz eta udal sail guztietara eta udalaz gaindiko erakundeetara bidaltzeaz (diagnosia berrikusi eta egoki zeritzeten ekarpenak dokumentuan barneratzeko helburuarekin). Bidalitako informazioa kontrastatzeko asmoz, banakako bilerak ere egin ziren sail eta erakunde bakoitzeko arduren teknikoekin (Bidasoa bizirik-eko zuzendariarekin, Txingudiko Mankomunitatearen teknikari eta gerentearekin, eta Hondarribiko sail guztien arduradun tekniko eta politikoekin). Aipatu bilerak 2005eko azken hiruhilekoan eta 2006ko lehen hiruhilekoan zehar gauzatu ziren.

Sail ezberdinetako eta eskualde mailako erakundeetako arduradun tekniko eta politikoek egindako ekarpenez gain, 2005 urtearen bukaera aldera (urria eta azaroa) aholkularitza enpresak 250 inkesta egin zituen Hondarribian, jasotako emaitza esanguratsuenak ere diagnosia osatzeko erabili zirelarik (helburua herritarren pertzepzioa ere aipatu dokumentu teknikoan –diagnosian- islatzea izan zen, eta ez soilik ikuspegi teknikoak).

Diagnostiko teknikoaren behin betiko bertsioa osatzeko lana 2006ko lehenengo sei hilekoan amaitu zen (gaztelerazko bertsioa) eta hurrengo pausoa udaletxean ordezkari politikoak zuten alderdiei diagnostiarene bertsio luzea eta laburtua helaraztea izan zen, beren ekarpenak egin zituzten. 2006ko uda pasa zenean, aholkularitza enpresak diagnostiarene azken bertsioa udaletxeko arduradun tekniko eta politikoekin, Bidasoa bizirik-eko zuzendariari eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariari aurkeztu zien (2006ko azaroa). Ondoren, aipatu dokumentua euskarara itzultzeko lanak hasi ziren (euskarazko bertsioa erabilgarri dago 2007ko urtarrilaz geroztik – bai diagnostikoaren bertsio osoa zein laburtua-).

Aipatzekoa da prozesu honetan zehar *Txingudiko Udaltalde 21*en kide ziren Udaletan jarraipen eta lan bilerak egiteaz gain, **Udaltalde 21en kide ziren Udal eta erakundeen arteko koordinazio bilera orokorrak** ere gauzatu ziren 2005, 2006 eta 2007 urteetan zehar (3 koordinazio bilera egin ziren 2005 urtean zehar, 2 bilera 2006 urtean eta azken bilera 2007 urtearen hasieran gauzatu zen), herri bakoitzean Tokiko Agenda 21en prozesuaren aurrera pausoak berrikusi eta eskualde mailako ekimenak ere abiarazteko; hala nola, **tokiko iraunkortasunarekin zerikusia duten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen antolaketa eskualde mailan:**

- *Nire autorik gabeko hiria* (2005eko irailak 22)
- Garapen iraunkorra, TA21 eta Txingudiko Udaltalde 21 proiektuari buruzko komunikazio kanpaina (2005eko abendua)
- *Aste Berdea* (2006ko ekaineko 1ngo. Astea, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira antolatu zena)
- *Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea* (2006ko irailaren 16tik 22ra)
- Gabonei begira kontsumo arduratsua sustatzeko sentsibilizazio kanpaina (2006ko abendua – 2007ko urtarrila)

Aurreko paragrafoan aipatutako sentsibilizazio kanpaineekin batera, herritarrek Tokiko Agenda 21en inguruan eta garapen iraunkorraren kontzeptuaren inguruan sentikortzeko asmoz, herriko eta eskualdeko mailako hedabideak ere erabili ziren; udal web gunean eta Bidasoa bizirik-en web gunean TA21ari buruzko atal bereziak sortu ziren, Radio Irun irratian eta Antxeta Irratian elkarrizketak egin zitzaizkion Udaltalde 21en koordinatzaileari eta udaletxeko arduradun politikoari, prentsa aurrekoak eman ziren udaletxean (Agenda 21en arduradun politikoak eta Udaltalde 21en koordinatzaileak egiten zituzten prentsa aurrekok), eta garapen iraunkorari lotutako beste web gune batzuetara aldiro Hondarribiko zein Irungo Agenda 21en prozesuei buruzko informazioa bidaltzen zen (Ihoberen web gunera www.ihobe.net edo www.agenda21local.net web gunera esate baterako).

Azkenik, aipatzekoa da Hondarribiko Udalak, Hendaiako eta Irungo Udalekin batera, **SISAL 21 mugaz gaindiko proiektuan** parte hartu zuela 2005 eta 2007 urteetan zehar (Bidasoa-Txingudiko udalerrien koordinazio teknikariaren bidez). Proiektu honen helburua proiektuko kide ziren udalerrietan iraunkortasunaren bidean ematen ziren pausoak neurtzeko eta udalerrien prozesuen arteko alderaketak gauzatzeko adierazleen sistema komun bat eratzea zen (<http://sisal21.tracasa.es>). Bidasoa-Txingudiko hiru Udalez gain, Girondeko eskualdeak eta Nafarroako Gobernuak ere parte hartu zuten. SISAL 21 proiektua eta Txingudiko Udaltalde 21 ekimena ezagutzera eman asmoz, eta aldi berean, TA21en prozesuan fase aurreratuagoetan dauden udalerrien esperientziak ezagutu asmoz, 2007ko otsailean **Tokiko Agenda 21en Jardunaldia** antolatu zen Ficoba erakustazokan. Udaltalde 21en koordinatzailea arduratu zen jardunaldiaren antolaketaz, hizlariak gonbidatzeaz, hedabideetara komunikazio materiala bidaltzeaz eta ondorengo memoria egiteaz. Jardunaldian SISAL 21 eta Txingudiko Udaltalde 21en inguruan informatzeaz gain, Errenteriako, Estella-Lizarrako eta Sant Boi de Llobregat udalerrietako TA21en esperientziak ezagutzekoa aukera egon zen.

2007 urtean zehar, aldi berean, Hondarribiko Udaleko oposizioko alderdiek iraunkortasunerako diagnosiari ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Honela, bi alderdi izan ziren ekarpenak idatziz aurkeztu zituztenak; Ezker Batua-Berdeak eta Branka.

2007ko urtearen azken seihilekoan, Udalak Inem-en bidez 2007ko iraila eta 2008ko urtarrila bitartean aldi baterako ingurumen teknikari bat kontratatu zuen. Aipatu teknikaria arduratu zen, besteak beste, oposizioko alderdiek egindako ekarpenak aztertzeaz eta 2008 urtean zehar Hondarribiko Udalarri Agenda 21en gaian aholkularitza teknikoak emateko enpresa kontratatzeke lehiaketarako pleguak prestatzeaz.

Gauzak horrela, 2007ko abenduan, Hondarribiko udalerrian Tokiko Agenda 21 proiektuaren ezarpen fasearekin amaitu eta Udala Agenda 21en hurrengo fasera igarotzeko prestatzeko, aholkularitza teknikorako enpresa kontratatu zen. Honakoak izan ziren diseinu fasea amaitzeko eman ziren pausoak:

- Oposizioko alderdiek diagnosiaren zirriborroari egindako ekarpenen erantzunak prestatzea.
- Oposizioko alderdiek egindako ekarpenetan, diagnosian informazio gehigarria sartzeko beharra zegoela adieraziz gero, informazio horren bilaketa egin, moldatu eta diagnosian sartzen.

- 2008ko otsailaren 27an, Hondarribiko Udalbatzak diagnosiaren azken bertsioa eta Aalborgeko Ituna onartu zuen.
- Urte bereko martxoan, Hondarribiko eskoletan Eskolako Agenda 21 hezkuntza programa txertatzeko hasierako prestaketa fasea hasi zen, eragile ezberdinen arteko aurretiazko bilerak egin zirelarik martxoa eta ekina bitartean.
- Apirilean Hondarribiko Tokiko Agenda 21en informazio saioa antolatu zen (helburua: sail guztietako ordezkariak eta alderdi ezberdinetako ordezkariak prozesuaren inguruan informatzea eta I. Ekintza Plana diseinatzeko orduan beraien inplikazioa lortzen saiatzea).
- Maiatza eta ekaina bitartean Hondarribiko iraunkortasunerako I. Ekintza Planaren hasierako zirriborroa idatzi eta udal mahai teknikoen bileretan aipatu dokumentua kontrastatu eta osatu zen.
- Uztailean Agenda 21en Herritarren Foroa sortzeko aurkezpen bilera irekia antolatu zen Hondarribiko udalbatza aretoan, une horretatik aurrera Foroak izango zituen funtzioak eta bete nahi ziren helburuak ezagutzera emanaz.
- Iraila eta azaroa bitartean Herritarren Foroaren gaikako mahaien nahiz Foroko oso bilkuraren bilerak eraman ziren aurrera. Horrela, 2009ko azaroan Hondarribiko Iraunkortasunerako I. Ekintza Planaren behin-behineko bertsioa osatzen bukatu zen.
- Abenduan Herritarren Foroak Ekintza Planaren behin-behineko dokumentuan jasotako ekintzen lehenespena egin zuen (ekintza bakoitzak lehenetsun maila bat dauka –altua, ertaina edo baxua).
- 2009ko urtarrilean zehar Udal Gobernuak Herritarren Foroak onartutako Ekintza aitortuz, aipatu dokumentuari oniritzia eman zion.
- Otsailean Ekintza Planaren edukia udal gobernuko kideen nahiz oposizioko alderdien artean zabaldu zen, azken proposamenak egiteko aukera irekita utziz.
- Otsailaren 18an, Udal Gobernuak martxoan egingo zuen udalbatza berezira eramango zuen I. Ekintza Planaren edukia Herritarren Foroko kideei aurkeztu zien.
- Otsailaren 25ean, Udaleko Ingurumena eta Agenda 21en udal batzordean I. Ekintza Plana eztabaidatu eta oniritzia eman zitzaion.
- Martxoaren 12an, Hondarribiko udalbatzak aho betez onartu zuen Hondarribiko Iraunkortasunerako Konpromisoa, eta era horretan, Udalsarea 21en sartuaz.

Beraz, martxoaren 12an, Hondarribiko I. Iraunkortasunerako Ekintza Plana onartu ondoren, honen ezarpen fasean aurkitzen da Udala, hau da, hurrengo bost urteetan martxan jarri eta aurrera eraman behar diren ekintzen exekuzio fasean.